



Lehiaren  
Euskal Agintaritzza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

## PRENTSA OHARRA

### **LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK GASTEIZKO HAMAHIRU AUTOESKOLARI ISUNA EZARRI DIE SALNEURRIAK ADOSTEAGATIK**

LEAk arau-hauste “oso larritzat” jo ditu gertakariak, enpresa lehiakideak kartel moduan jokatu dutelako, eta 143.000 euroko isuna jarri die Gasteizko hamahiru autoeskolari.

Ikerketan aurrera egin ahala, ikertutako hiru autoeskola errugabeak zirela ondorioztatu da.

Ikerketak ondorioztatu duenez, hitzartutako jardunbidea izan da autoeskolena eta, horren eraginez, bateratu (eta igo) egin da B motako gidabaimena lortzeko klase praktikoaren salneurria Gasteizen.

Ebazpenean, LEAk zehapena eragin duten jokabideak bertan behera uzteko agindu die eta ebazpena betetzen dela zaintzea eskatu dio Ikerketa Zuzendaritzari.

2015eko maiatzaren 6

LEAk —Lehiaren Euskal Agintaritzak— 143.000 euroko isuna, guztira, jarri die Gasteizen autoeskolen sektorean aritzen diren hamahiru enpresari, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikuluan ezarritako araua hautsi dutela egiaztatu duelako. Artikulu horrek, zehazki, debekatu egiten ditu lehia murrizten edo faltsutzen duten akordio zein hitzartutako jardunbide oro, salneurriak nahiz merkataritza- edo zerbitzu-baldintzak finkatzeagatik, besteak beste.

Espedientearen Ebazpenarekin, LEAk egiaztatu du zehatutako hamahiru autoeskolek arau-hauste “oso larri” batean parte hartu dutela; hain zuzen, B motako gidabaimena lortzeko klase praktikoaren tarifak edo prezioak adostea, 2010etik 2013ra.

Hala, Ebazpenak egiaztatu du ÁLAVA, AÑUA, CLAXON, GASTEIZ, MENDIKO, OLARIZU, GORBEA, ARCINIEGA, KM0, SAN PRUDENCIO, ZALDIVAR, MENDIZORROZA eta AURRERA autoeskoleen parte-hartzea. Zenbateko desberdineko isunak ezarri ditu kasuan-kasuan; horretarako, kontuan hartu dira, besteren artean, zein epetan aplikatu duen autoeskola bakoitzak adostutako tarifa eta zer negozio-bolumen duen zehatutako enpresa bakoitzak.



Ikerketa 2012ko otsailean hasi zen, pertsona batek —salaketa aurkeztu nahi ez baina Agintaritzari informazioa eman zionak— telefonoz deitu eta adierazi zuenean autoeskola batzuk bisitatu zituela eta jakinarazitako klase praktikoen salneurriak berdinak zirela, “baita zentimoak ere”.

Deia jasota, LEAk ikerketa sakon bat egin du, hainbat froga burutuz, hala nola, tarifak, merkatu-kuotak, hornidurak eta materialak, zehatz-mehatz aztertzea. Halaber, aldean alegazioak ere aztertu dira. Izan ere, zehapen-prozeduraren zehar, aldeek euren eskubideak defendatzeko aukera izan dute, Legeak ezartzen duenari jarraiki.

Espedientearen ebazpenak hau baieztatu du: Gasteizko autoeskola-merkatua ikertu zen urteetan bazegoela hitzartutako jardunbide bat eta, haren eraginez, bateratu egin zirela B motako gidabaimena lortzeko klase praktikoen salneurriak (kasu askotan zentimoak ere berdinak ziren eta beste kasu batzuetan tarifen arteko aldea 1,5 eurokoa baino gutxiagokoa zen). Enpresen kostu-egituretan eta haiek eskaintako zerbitzuetan egiaztatutako aldeak daudenez, espediente honetan aztergai diren Gasteizko autoeskolen tarifetan ez litzateke berez halako antzekotasunik egon behar.

Zehatutako autoeskolek, ikertutako epearen bi unetan, salneurriak igo zituzten aldi berean. Hori adierazteko ez da aukitu hitzartutako jardunbidetik kanpoko alternatibarik.

Horiengatik guztiagatik, uste egin da uko egin ziotela beren artean lehiatzeari.

Enpresen arteko lehia faltaren ondorioa kontsumitzaileentzako kalte nabarmena da. Izan ere, egiaztatu egin da Gasteizko salneurriak hurbileko hirikoak edo biztanle-kopuru berdinekoak baino askoz garestiagoak direla. (Izatez, 2013an Gasteizko salneurriak Bilbokoak baino %20,59 garestiagoak, A Coruñaakoak baino %187,90 garestiagoak eta Estatuko media baino %55,77 garestiagoak dira).

LEAk Errukitasun Programa bat du martxan; haren bitartez, kartel batean parte hartu duen enpresak edo zuzendaritzako kideak kartelari buruzko informazioa eman dezake, eta, trukean, ezarri zaion isuna barkatuko edo murriztuko zaio.

Lehiaren Euskal Agintaritzza Administrazioako erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailari atxikia, eta erakunde- eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Lehiaren Euskal Agintaritzaren helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoetarako dagokienez.